

## **EUSKAL LAN HANDIA OMENDUA** **(L. Akesolo - S. Onaindia)**

Apirilaren 7an Bizkaiko Aldundiak Lino Akesolori omena eskaini zion. Eta maiatzaren 13an Zornotzako Udalak Santi Onaindiari, bere 80. urtean beste hainbeste egin zion.

**Biak Karmeldarrak.**

Baina omenaldia euren ikaragarritzko euskal kulturaren aldeko lanagaitik izan da; benetan lan sakon edo ugaria, guda aurrean hasi eta gaur arterainokoa.

Eginiko lana saritu da; bizitza osoko lana.

Biak aurkitzen dira gaur eguncan euskara-munduan bizi direnen artean gorengo gailurrean:

- Bata, L. Akesolo, euskalari legez, euskalki guztien jakitun, euskal literaturaren menperatzaile, kritikari sakon, kultur orokorraren jabe... hor dagoz taldean eginik, baina bera zuzendari eta egile nagusi delarik, argitaraturiko 9 tomoko «Euskararen Lekukoen Hiztegia», edo eta laster bi tomotan (1.600 orr. inguru) ekamean agertuko den bere idazlan guztien bilduma... Eta zenbat ixileko lan!

- Bestea, S. Onaindia, euskal-lanen dibulgatzaile handiena. Hor daude 55 liburu inguru, berak euskaraz argitaratuak: bere-

beak, besteenak, itzulpenak, etab. Nork ez ditu ezagutzen bere lehen liburu garrantzitsua *Milla euskal-olerki eder* (1945) edo Euskal-literatura (1971-1977), etab. *Oleri* aldizkariaren sortzaile, *Karmel* aldizkariaren zuzendari.. Eta berak idatzitako artikulua 550 baino gehiago.. Ez al da euskal idazlerik oparoenatarikoa? 18.000 orrialde inguru!

Omenak jaso dituzte biok,  
euskaldun gizon biok:  
euskara-munduko gailurrean.  
Euskal kulturako bi pertsonalitate desberdin,  
bi estilo edo joera desberdin dituelarik.

Gaur eguncan, euskararen alde hain hitz ugari erabilten dan giroan, bi euskal idazleon jarraibidea ez al da hitz guztiak gainditzen dituen eredu?

Omenaldiok ez al dira herri osoaren eskerroneko aitorkuntza? Ez al dira bieci jarraitzeko garrasia?